


Osasun Sistema Nazionaleko Osasun-teknologiak eta Prestazioak Ebaluatzen Agentzien Espainiako Sarea (RedETS)

Osasungintza berritzaile, jasangarri eta kalitatezkoa bidean



Osasun Sistema Nazionalari (OSN) funtsezko **aholkularitza zientifiko-teknikoa** eskaintzen dion erakundea da **RedETS**. **Ebaluazio independente** eta **gardena** egiten du, **parte-hartzea** oinarri hartuta eta **metodologia-esparru komuna** erabiliz.



1 NOR GARA?

Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia-erkidegoetako agentzia eta unitateek osatzen dute **RedETS**. Elkar aitortuz eta lankidetzan aritzen gara, **sare-lana** eginez.

2 ZER EGITEN DUGU?

Osasun Sistema Nazionalaren maila desberdinetan **erabakiak hartzeko** lagungarria izan daitekeen **informazioa** ematen dugu. Horretarako, farmakologikoak ez diren **osasunteknologiaren ebaluazioa** egiten dugu, teknologia horien bizitza-ziklo osoan zehar.



Ebaluazioaren kultura sustatzen dugu, OSNren kudeaketa sanitarioan eta eguneroko jardunbide klinikoan eraginkortasunez txerta dadin.



Eraginkortasunez jarduten dugu, Estatuko **osasun-teknologiaren ebaluaziorako agentzia eta unitateen arteko lankidetzari** esker, **sare-lana** eginez.



3 NOLA EGITEN DUGU LAN?

Informazio zientifiko zehatz eta kalitatezkoa dugu oinarri. Horretarako, farmakologikoak ez diren osasun-teknologiaren ebaluazio-txostenak, jardunbide klinikoari buruzko gidaliburuak eta ebidentzian oinarritutako beste produktu batzuk eta osasun-teknologia berria zein sortzen ari dena monitorizatu eta hautemateko azterlanak baliatzen ditugu.



Osasun sistemako eragile eta parte-hartzaileak barne hartzen ditugu sarearen prozesuetan.



Osasun Sistema Nazionalaren lehentasunak eta biztanleriak osasun-arloan dituen beharrezkoak aintzat hartuta egiten dugu lan.